

## Kulturak plan estrategikoaren jarraipen mahaia bildu du, egungo egoera aztertzeko

Egungo planaren ebaluazioa eta hurrengoaren diseinua atzeratu egin dira alarma egoeraren ondorioz, baina "egungo errealitatetik hurbilago dagoen diseinu errealistagoa egiteko aukera" gisa balioko du

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 21a.** Kultura eta Kirol Sailak bilerak egiten jarraitzen du kultura sarearen eta haren etorkizunaren egoera aztertzeko, COVID-19ak eragindako krisiari dagokionez. Gaur arratsaldean, Ana del Val foru diputatua eta Inma Sanchez Arbe Kultura zuzendaria Arabako Kulturaren Plan Estrategikoaren koordinazio orokorreko eta jarraipeneko mahaiarekin bildu dira.

Bertan, planaren egoera aztertu ahal izan dute -alarma egoerak eta administrazio epeen geldiarazteak etenda dutelako haren ebaluazioa-, eragileek sailari helarazten ari zaizkion egoera aztertu dute eta parte hartzaileen ekarpenak entzun dira.

Foru diputatuak iragarria zuen plan estrategiko berriaren epeak eta edukiak birformulatu beharra zegoela, normaltasun berrira egokitzeko, eta hori berretsi du gaur. Izan ere, Del Valen arabera, "begi bistakoa da krisi honek plana asko baldintzatu duela, zeren egungo planaren ebaluaziorako kontratuaren esleipen betean geundenean alarma dekretuaren bidez bertan behera geratu zen, eta, era berean, ezin izan da 2021-2024 plan berria diseinatzeko kontratua argitaratu, bi kontratuak lotuta baitaude".

Hori bai, foru arduradunak azpimarratu duenez, "egoera hau aukera bat bezala ikusi behar dugu, diseinu berria errealistagoa eta bizi dugun errealitatetik hurbilagoa izatea ekar dezakeelako, kultura kudeatzeko modu berriekin, sektorearekin oso hurbil lan eginez eta jarduera ildoak berriz diseinatzuz, kultur eragileen eta herritarren beharrei erantzunez errealitate berri horretatik, zein den ikusi beharko baita".